


uztarria

|||Azpeitiko herri aldizkaria ||| 2014ko martxoa ||| 159. zenbakia |||  |||

URREZKO LIBURUAK

Azpeitiko Udal
Liburutegiak 50 urte
beteko ditu apirilean 20



**BADAKIZU ZERGATIK AZTERTZEN
DUDAN NIRE ENTZUMENA GAES-en?**

*"Egunen batean dena errepika
diezadatela saihestu nahi dudalako"*



www.gaes.es



2014ko neguko promozioa

Gozatu ezazu zure etxean Miele batek bakarrik eskaini dezakeenaz: exigentzia handienari erantzungo dioten emaitzak, fidagarritasun paregabea eta iraunkortasun bermatua.

Aurkitu perfekzioa **prezio erabat sinestezinean.**

Erabilera
anitzeko labea

629€

Garbigailua

799€

Bero-bonba
bidezko lehorgailua

999€

Ontzi-garbigailua

599€

Gipuzkoako Miele Banatzaile Ofiziala:

**MILAR
LARRAMENDI**

Julio Urkijo, 16
20720 Azkoitia-Gipuzkoa
Tel.: 943 851 897

Made in
Germany

Miele
IMMER BESSER

*2014/01/07tik 2014/03/31ra (biak barne) gomendatutako prezioa.
RAEE kostua barne. Zergak barne. Beste eskaintzekin bateraezineko prezioa.

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 159.a (2014ko martxoa)
Urtea. XV.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio
 eta Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
 uztarrria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hileroko
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Olatz Prat
Webgunea.
www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Uztarriak Bai Euskarari

Oharra. Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



2014KO MARTXOKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? ||||||||||||



iritzia

Inkesta. Gainbeheran al dago Azpeitian parranda? **13**

mamia

Xanti Agirrezabala.

Telebistarako jautzia eman du, 'Goenkale' telesailean **04**

Klik! Herriko

komentuak eta erlijio-egoitzak argazkitan **16**

Mutxikoak. Martxoan hasita, hileko bigarren igandeak dantzarako izango dira **24**

jakiteko

Atzera begira.

Loiolako sanjoseak, garai bateko jendetza eta arrakasta **34**

Ba al dakizu Ruth Beitia altuera jauziko atleta espainiar ezagunaren aitona zena azpeitiarra zela? Uztarrria

egin zaitez bazkide Uztarrian



943 15 03 58

Herri aldizkariaren gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1** eta **biografiak txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.060 bazkide **30** euro dira gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro dira **urtean.** 110.000 euroko aurrekontua 2014an.




Liburuxka biografikoak, oraingo. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpirtarte 'Kabra', Enrique Zurutuza, Maria Jesus Arregi

XANTI AGIRREZABALA

‘Goenkale’ telesaileko aktorea

“Julenek nire ‘graxi’ puntu hori falta du”

Telebistarako jauzia eman eta ‘Goenkale’-n Julenen paperean hasi da lanean. Esperientzia horretaz eta aurrera begirako asmoez hitz egin du.   A. Agirrezabala

ETBko *Goenkale* telesail ezaguna istorio eta aurpegi berriekin dator, beste behin ere. Eta aurpegi berrien artean dago Xanti Agirrezabalarena. Joan den hilaren 10etik aurrerako ataletan ikus daiteke Agirrezabalaren lana, ETB1-en. Azpeitiarra Julen da Arralden. Aurretik figurante lanak egin izan ditu *Goazen!* eta *Mugaldekoak* saioetan. **Matxindarren sagan erremontistak ugari. Zuk, berriz, nahiago izan duzu kiro-lari heldu baino telebistarako jauzia egin.**

Bai, betidanik gustatu izan zait mundu hori eta hemen bakoitzak nahi duenari ekiten dio, ezta? Familiari erremontista asko dago eta pixka bat aldatzeko ere ez da

gaizki etorriko. Nire debuta telebistan izan da eta gustura nago. **‘Goenkale’-n jokatu duzun rolarri buruz hitz egin ezazu.** Aita hilda dudala uste dut, baina orain transexuala da eta izeba Erika balitz bezala aurkeztu didate. Gaixotasun baten ondorioz, ama hil egin zait eta izebaren eta haren bikotekide Manexen etxera joan naiz bizitzera. Julen bere adinerako, 17 urterako, oso pertsona heldua da. Ama gaixo izan duenez, txikitatik beti aritu da ama zaintzen, amari babesa ematen. Amaren eta semearen arteko paperak aldatuta egon dira, eta horregatik da Julen oso heldua. Gero, ordea, aldatuz joango da, heldutasun hori galduko du tarteka, bere bihurri puntua erakutsiz.

DATUAK

||| **Jaio.** 1997ko ekainak 24.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizi tokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.** Batxilergoko ikaslea eta aktorea.

Julenek eta Xantik ba al dute antzik?

Dezente formalak dira biak, baina Julenek nik dudana *graxi* puntu hori falta du. Pertsona serioa da; ni biziagoa naiz.

Telebistarako jauzia egin aurretik kasting asko egin behar izan al duzu?

Ustekabean harrapatu nauen kontua izan da. Lehenbiziko aldiz iazko udan aurkeztu nintzen *Goenkale*-ko kastinera. Beste pertsonaia baten rolerako egin nuen proba baina ezezkola erantzun zidaten. Geroago, berriz deitu zidaten, beste pertsonaia baten pa-

pererako norbait behar zutela eta proba egitera joateko. Hala, proba egin eta astebeteren buruan baiezkola eman zidaten. Kosta zitzaidan sinestea, ez nuen asimilatzen eskolaz gain lanera ere joan beharko nuela.

Azpeitiko antzerki tailerrean ere bazabiltza.

Tailerra dena izan da niretzako. Hutsetik hasi nintzen, duela bi urte eta dakidana bertan ikasi dut. Aktore bezala trebatzeko nire lehenbiziko pausoak han eman ditut, eta oso gustura nabil. Oraindik asko ari naiz ikasten eta ekarpen handia da. Alaitz Olaizola irakaslearekin, berriz, izugarri ondo. Amatxo bezala da guztiontzat, asko balio duen pertsona; laguntza handia ematen digu.



Batxilergoko aurreneko mailan zaude. Ikasketak eta grabazioak egiteko nola moldatzen zara?

Okerrena horixe daramat. Gauza polit honen arantza horixe da, eskola. Astean bi eskola egun galtzen ditut, baina apunte onak dituzten lagunak baditut eta haiei esker errekuperatu ditut galdutako ikasgaietako edukiak. Asko lagundu didate lagunak, eta alde horretatik oso eskertuta nago. Eskola nola eramango nuen kontuak kezkatzen zituen etxean ere gurasoak, baina nahikoa ondo ari naiz eramaten.

Aktore bezala aurreneko lana duzu hau telebistan. Zer inpresio egin dizu mundu horrek?

Noski, mundu zaila da, baina oso inpresio ona egin dit. Hasiberria naizenez jendeak asko lagundu dit eta oso gustura aritu naiz. Inguruko jendeak esan dit oso natural ikusi nautela, baina etxeko sofatik neure burua telebistan ikustea oso arraroa egin zait. Ez naiz neu ikusten. Beti ikusten ditut hobetu beharreko puntuak, baina nahikoa gustura nago egiten ari naizenarekin. Nolanahi ere, kapituluek aurrera egin ahala, erosoago sentitu naiz eta hobetzen joan naiz grabazioetan.

Zu baino hiru urte zaharagoa da saioa. 20. denboraldia du aurten; espainiar estatuko luzeena da. Goenkale-ren jarraitzailea izan al zara?

Bai, oso gustura ikusi izan dut, nahiz eta ez dudan beti segi izan.

Oroitzapen bat dut, txikitan, El-duaingo amona Ixiar eta biok ohean sartu eta hanketan adreilu beroa genuela ikusten genuen *Goenkale*. Orain, berriz, inguruko guztiak zain izaten dira, ni telebistan noiz ikusiko.

‘Goenkale’-n aktore lanetan beteranoak eta profesionalak daude. Lana egiteko ez ezik ikasteko ere balioko dizu horrek.

Bai, horixe. Haiekin zauden une bakoitzean ikasten ari zara. Erraztasun handiz egiten dute lana eta arreta handia jartzen dut haien lanean. Egia esan, gidoiak eta ikasteko uste baino errazago moldatzen naiz. Grabazioetan, berriz, gehiena kostatzen zaidana ahoskatzea da. Nerbioengatik ahoa lehortu eta mingaina loditzen zait.

Ba al duzu bakarren bat gustukoa oraingo aktoreetatik edo eta lehengoetatik?

Asko. Guztiak dituzte euren alde onak, txarrak baino gehiago. Kontxu Odriozola –Marialuisa– oso gustukoa nuen, esaterako. Maiteina Salinas –Mireia, *Goenkale*-n– asko gustatzen zait; Karmele Larrinaga –Axun– ere bai. Oso profesionalak ikusten ditut guztiak.

Azpeitian ‘Goenkale’-k dezenteko tiradizoa du. Antzemango zenuen, noski?

Bai, horixe! Urtero azpeitiarren bat atera izan da! Koadrilan, eskolan eta etxean galdetzen didate *Goenkale*-n zer gertatuko den. Nik, ordea, ezin dut ezer ere kontatu, sekretu profesionala da hori. Zer gertatuko den jakin nahi duenak ikus dezala telesaila. Klean ere tokatu izan zait jendearekin gurutzatu eta begira geratzea.

Batxilergoa bukatzean, ikasketa aldetik zer ibilbide egin nahiko zenuke?

Nik bide hau jorratu nahiko nuke. Baina oso zaila da, egonkortasunik eskaintzen ez duen mundua delako. Baina egun non dago egonkortasuna? Alde horretatik, pixka bat galduta nago eta oraindik ez dakit zer egin. Baina gustatzen zaidana egin beharko dut. ✘

“Nerbioengatik ahoa Lehortu eta mingaina Loditzen zait grabazioetan”

“Egonkortasunik eskaintzen ez duen mundua da; mundu zaila, oso”

Ainhoa Otermin
Biodantza Garapen Perbionaleko Sistema

Azpeitian, ostegunero, 19:00etatik 21:00etara
aotermin2@gmail.com www.biodanzadonostia.com Tel.: 659 83 80 40

Nire esku dago

O

tsailaren 26an, Sana-gustin Kulturgunean Gure Esku Dagok antolatutako hitzaldi zikloen baitan, Joseba-Felix Tobar-Arbuluk hitzaldi zinez interesgarria eskaini zuen. Erraz ulertzeko moduan azaldu zituen egungo ekonomiaren funtsak, eta bere pentsamendu kritikoa argi geratu zen, norabide guztietan hainbat bala bota baitzituen, Lucky Luke bailitzan, azkar eta zehatz.

Funtsean, Europar Batasunetik haratago estatu independente batek nola biziraun dezakeen (bai, posible da) azaldu zuen. Oso ondo azpimarratu zituen zenbait ideia, esaterako, dirua egon badagoela, nork agintzen duen (troika, Wall Street), edo gure nazio balioa enpresa txiki eta ertainetan dagoela, arlo ekonomikoan. Baina bereziki, gogoeta errepikakor hura: zertan ari gara? Maila teorikoan galduta gaude. Bala bat guretzat, tontoak gara.

Behin eta berriz pentsatu izan dut zein garrantzitsua den errealtatearen inguruko oinarritzko ezagutza teorikoak, izan ekonomian, filosofian, hizkuntza mailan, hezkuntzan, matematikan, psikologian, soziologian zein zuzenbidean, menperatzea. Kalean baina, pentsalarien, zein geure gogoeten eztabaidak, ez dira ohikoak. Are gehiago, esango nuke jakinduriari nolabaiteko mespretxua egiten diogula, horiek frikien kontuak balira bezala. Oker gaude.

Gure helburuak zehaztu eta garatzeko, esaterako, ezinbestekoa da estrategiak, ekintza zehatzak eta ekintzen bitartez nora iritsi nahi dugun, planifikatzea. Sistemakoak izatea, azterketa, balorazioak eta batez ere, kontrol lanak bermatzea. Banaka zein taldean. Era berean, hankak lurrean mantentzeko, ezinbestekoa da ameskerietan ez erortzea, eta gure benetako baliabideak zein diren eta berauekin nora iritsi gaitzkeen kalkulatzea, arrisku eta kalteak baloratzea, eta, ondoren, aukeratzea, erabakitzea, jakinaren gainean, ondorioak zein izan daitezkeen. Zentzu honetan, arduratsua izatea da komunitateko par-



|||||||hodei mendinueta|||

|||Zertan ari gara?
Maila teorikoan galduta
gaude. Bala bat guretzat,
tontoak gara.

taide gisa, bete behar den baldintza. Eta hori, gure esku dago, nire esku dago.

Nire esku dago, nire jakin nahi eta interesak asetzeko. Nire esku dago, "status quo"-a zalantzan jartzea. Aurreiritziak gainditzea. Besteek esango dutenaren zain eta beldurrez ez egotea. Gustuko neska edo mutilarengana hurbiltzea. Nire ametsengatik borrokatzea. Eta nire esku dago, bereziki, komunitatearengatik eman dezakedana, hilerro, eguneroko, orduero, minutuero edo urtean behin ematea, egokiena iruditzen zaidan moduan.

Izan nortasuna

Baina, nahi duguna ezagutu behar dugu, eta Tobar-Arbuluk zioen bezala, errealtateetik hasi behar da nonbaiteik hastekotan. Inguan duguna ezagutu, ez ezer sinestu, gauzak zalantzan jarri. Horretarako entrenatu behar dugu geure garuna, jakinduria eta ezagutza pilatuz, askeago baikara unean uneko egoeren azterketa kritikoa egiteko eta helburuak finkatzeko. Gertakariak azalpen bat dute, bilatzen ikasi behar dugu, eta gure, norberaren, iritzia izan. Finean, nortasuna izatea, lantzea, eta eraldatzea, nire esku dago.*





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:
10:00etatik **14:00** etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea, Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Institutuoetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Autran Institutoa, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Lanerako bidean

Hondarribiatik 35 minutuan iristen da escalerillas geltokira. Ordurako autobusa goraino beteta doa, Erretereria eta Antxoko jendez, batik bat. Kristaletik eskuin aldera begiratu eta badiaren ertzetan, garabitzarrak beren atzapar okerrekin lanean dihardute, txatarra alde batetik bestera mugitzen, ontziak bete eta husten. Burdinezko robotak, erraldoiak, bata bestearen ondoan ezarriak uraren ertzean, portuko gainontzeko gris koloreko pabilioi eta erdoildutako mendiekin batera haragi mamizko gizakitxoentzat mundu arrotza osatzen dute. Mugitzen hasteko ordua da geltokia pasatu aurretik.

Furgonetarekin guztia azkarragoa da, etxe-ko eskailerak jaitsi, giltza sartu, motorra mar txan jarri eta ti-ta. Ez gidatzeari abantaila askoz gehiago aurkitzen dizkiot ordea azken aldian eta Pasaia ez ezik atzerrira bidaia-tzeko aukera ere ematen dit. Ingelesa zertxobait mantentzeko astia eta modurik merkeena aurkitu dudala alegia, lanera bidean eta autobusean, liburutegiko nobelarekin. Erren-tagarritasun horrek plazerra eragiten dit, au-tomotibazioa.

Errutina bat beste jendearekin, ezezagunekin partekatzean, ezezagun ezagunak bilakatzen dira konturatu gabe. Lehengo egun batean nire geltoki berean sartzen den eta sekula hitzik egin gabea nintzen emakume bat lotatik esnatu nuen goizeko zortziak inguruan. Nire aurreko eserlekuan zihoan eta jaitsi ohi zen geltokia pasatu genuenez, dile-matxo bat sortu zitzaidan: "esnatu egingo diat ze lanera berandu iritsiko duk, ala pake-an utziko diat, hik zer dakik zer egiten duen?". Azkenean, kontzientzia lasaiago edukitzeko golpetxo batzuk eman nizkion eskuarekin. Begiak ireki eta egun horretan errutina aldatu zuela eta beranduago jaisten zela esan zidan.

Egun grisak dira eta paisaiarekin bat egi-ten dute, Pasaia-koarekin. Aterki hau erdi



|||||||iosu salegi|||


|||Errutina ezezagunekin partekatzean, ezezagun ezagunak bilakatzen dira konturatu gabe

hautsia dago, lehenagotik ere banekien hori, baina ez dut beste bat erosi nahi. "Gauze in-komodie ta galtzeko errexa guardosola, hau etzibek harrapauko behintzet".

Egurra hor dago, uraren ertzean izeiak tente daude aspaldian, palet zuri-gorriek al-bergearen pareta itxuratzen dute kanpotik. Lanean hasteko ordua iritsi da, ate urdina ireki eta barrura sartuko naiz.

Minutu hilen heriotza

Geltokiko gehienak pantailatxoetara begira daude eta gauzak idazten. Neuk ere poltxiko-tik hartu dut mobila ordua begiratzeko, topo-ko geltokiko erlojuak minutu bat gutxiago markatzen du. Zer gertatu da sabaiko arraila eta armaia sareei so aspertuta zain egon beharreko momentu haiekin? Ba al dute etorkizunik ile-apaindegietako eta hortz-kli-ni-ketako aldizkariak?*



Konfiantzazko aholkulariak

M^a Pilar Arregi eta Ikuska Amutxastegi dira proiektu berri honi gogotsu eta ilusioz ekin dioten bi lankideak. IKUSGEST AHOLKULARITZA INTEGRALA, SL ireki dute Azpeitian. Beraien hitzetan azaldu dute enpresa berria sortzera eraman dituen bidea.

Herriko hainbat enpresa itxi ondoren, Azpeitian langabezia hain handia den uneotan, beste hainbat pertsona bezala lanik gabe gelditu diren bi lankidek bide berri bati ekin diote. Gestoria Pilar Gurruchaga, SL hartzekodunen konkurtsoan sartzean, langabezia gelditu ziren Ikuska Amutxastegi eta Maria Pilar Arregi. Egoera honen aurrean, senitartekoen eta lagunen animoei esker, euren enpresa sortzeko erabakia hartu zuten.



Ikuska Amutxastegi eta Maria Pilar Arregi, Ikusgest aholkularitzako jabeak.

ESPERIENTZIA

Maria Pilar Arregik adierazi duenez, “35 urte baino gehiagotan, era guztietako eskriturak tramitatzea izan da nire jarduera nagusia: erosketak, obra berriak, dohaintzak, herentziak... eta abar. Azken urteetan, berriz, batik bat notaritzan eskriturak sinatu aurreko aholkularitza izan da nire eginkizun nagusia. Mota guztietako eskrituren prestaketan elkarlanean aritzen gara, hala nola, herentziak, lur sail

eta salmenta bereizketak edota obra berrien aitortpenak eginez. Operazio hauek burutzeko behar diren aurretiko agiri, lizentzia eta eguneratze katastralen gestioa ere geuk egiten dugu”.

Ikuska Amutxastegiren esanetan, “Azpeitian, eskrituren gestioan aritzetik Donostian Kontabilitate sailera igaro nintzen, eta ondoren, Fiskaliterata eta Laboralera. Fiskalitate eta Laboral sailean besteak beste errenta eta

ondare aitortpenak, BEZa edota IRPFaren hiruhileko aitortpenak, kontabilitatea eta lansarien tramitazioa burutzen ditugu. Trafiko gestiorako, ogasunerako edota merkataritza eta jabetza erregistroarako dokumentuen prestaketan ere aritzen gara lanean.

ESKAINITZA

Urte guzti hauetan lortutako esperientzia eta ezagutzagatik, aholkularitza eskaintza zabala eskain-

tzen dute ondorio fiskalak kontuan izanez. Norbanakoei nahiz enpresei eskaintzen dizkiegu gure zerbitzuak, ogasunean, gizarte segurantzian, trafikokoan edota jabetza erregistroan aurkeztu beharreko dokumentuen gestioa errazteko asmoz.

Baita ere esan, beste profesional batzuekin elkarlanean egiten dugula lan, besteak beste balioztatzeak edota energia-eraginkortasunaren ziurtagiriak lortzeko.*



943 810 475

Foru ibilbidea 7 Behea - 20730 Azpeitia

ikusgest@ikusgest.com

www.ikusgest.com

||| HIZKUNTZ ESKUBIDEAK |||

Euskaldundu izen-abizenak

Zenbat aldiz pentsatu duzu abizena euskaratu beharko zenukeela? Azpeitiko Euskara Patronatuak eta UEMAk abian dute abizenak euskalduntzeko kanpaina.  Ainitze Agirrezabala

Arteche, Aguirre, Goicoechea, Echeverria... Zure abizena horietako bat al da? Zenbat aldiz pentsatu duzu abizena euskaratu beharko zenukeela?

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) eta Azpeitiko Euskara Patronatuak abian dute abizenak euskalduntzeko kanpaina.

Tramitazioa Euskara Patronatuan egiteraz, nortasun txartelaren eta familia liburuaren fotokopia eraman behar dira. Agiri horiez gain eskari orri bat ere bete eta sinatu behar da, baina hori patronatuan bertan eskura daiteke. Deiturak euskaraz idatzita jartzeko beste bi agiri ere behar dira: eskatzailearen udal-errodaren agiria eta jaiotza agiria, baina horiek lortzeko ardura Euskara Patronatuak hartzen du bere gain eta baita herritarren eskaria behar bezala beteta Azpeitiko Epaitegiaren Erregistro Zibilera

eramateko ardura ere. Gurasoek abizenak euskaraz idatzita jartzen badituzte, seme-alaba guztiei abizen horiek ere euskaraz idatzita azalduko zaizkie.

Bestela, abizena euskal grafiara moldatu nahi dutenek erroldatuta dauden herriko erregistro zibilera edo bake epaitegira joan, eskaera orria bete (www.uma.org atarian eskuragarri dago eskaera orria) eta agiri hauek eraman behar dituzte: nortasun agiriaren fotokopia; hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria, epaitegietan eskatzen da; errolda agiria, udal-etxean eskatzen da; ezkontuta bazaude edo seme-alabarik baduzu, familia liburuaren fotokopia eta 16 urtetik gorako seme-alabak dituztenen kasuan, seme-alaben nortasun agiriaren fotokopia. Izena edo abizena euskaraz nola idatzi behar den kontsultatzeko: www.euskaltzaindia.net.



Sergio eta Santos Gomez.

||| **ESANA DAGO** |||

||| “Bizitzeko aukera eman nahi diogu semeari; horren bila goaz Txinara”

||| “Gure erabakia ez da izan bat-batekoa, oso ondo pentsatu ondoren hartutakoa baizik”

||| “Jadanik, Azpeitian hainbat merkatarik bat egin dute kanpainarekin”

SERGIO GOMEZ
‘Santosi elkartasuna’
kanpainako kidea

||| “Saio hauek erronka bat dira, musika ikastera bultzatzen nautelako”

JOSE L. FRANTZESENA
Organo-jotzailea

Aiertza Autoak
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net
MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Kontrax gogoan

Batzutan, asko jakiteak amorrua ematen du. Harrokeria badirudi ere, azken boladan entzun dudan egiarik borobilenetakoa da. Amorrua, batez ere, zuk bezala beste guztiek ere asko badakite. Ba ote mundu honetan, lagunartean, bazkal ostean, tontakeria baten inguruan, amaigabeko eztabaida sutsu eta temosoa baino kontu osasungarriagorik?

Norbera egia osoaren jabe delakoan, ma-trailak gorri-gorri egin eta buru gainetik kea dariola, bere egia sutsuki defendatzea da dagoen unerik gozagarrienetakoa. Eta beste denak aurka badituzu, kontrax bat bihurtzen bazara, hori zerua da, hori ordainduko duen

eurorik ez da oraindik sortu. Pentsatze hutsarekin bakarrik "katxondo" jartzen hasi bazara, kieto, geldi... amaitu da zure gozamen. Diktososko *google* asmatu zuenak eta *google* madarikatu hori telefonoetan denen esku jarri zuena, infernuan erre bedi, buelta eta buelta. Eztabaidak amaitu dira, txinpartaren bat sortu orduko, hor agertuko da dena dakien lagun amorragarria, mobila aterako du, 'hau *google*-en berehala argituko diagu', esanaz. '33 urte dizkik, 81ekoa dek'. Zertarako jakin, jakite hutsak bi orduko eztabaida magikoa eragotzi badigu?

Google hori zerbait demokratikoa izango



txetxu urbieta

da, jakitua, orojakitua, gizaki oren esku utzi duelako. Baina, denek zuk adina badakite, zertarako dakizuna jakin? Egon zaitez bizitzako 25-30 urte, liburu artean burua jaso gabe, tonto baten moduan, ikasi eta ikasi, eta zertarako, eta mobil triste bat duenak minutu bakar batean zuk adina jakiteko. Horretarako, tonto izanda asmatu. Esan zidan bai niri haur batek, 'kazetari? Kioskoan egunkaria saltzeko ere unibertsitatean bost urte ikasi behar al dira?

Askotan entzun dugun esaera da, 'dakidan bakarra, zenbat eta gehiago jakin, are eta gutxiago dakidala'. Hori esan zuenak, *google* karrera duenari zer demontre esango ote lieke?*

IKUSTEKOA!



▲AUTOBUS-GELTOKIKO KOADRILA.

Zenbaitek tertuliarako gune taberna edo kafetegia izan ohi du; Inazio Amilibia 'Txikerra', Jose Mari Aranguren, Gregorio Iturralde eta Eugenio Ezama goizero elkartzen dira Ibai Ondo kaleko autobus-geltokian. Lasako bidegorrian ohiko ibilia egin ostean, paradan hartzen dute atsedena eta bazkaltzera joan aurretik, tragotxo bana ere hartzen dute. 🍷🍷 Ainitze Agirrezabala*

OTSAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Hebentik eta handik

ZUBIGINTZA. Xuberoako haizez inguratutik ibili gara Azpeitian. Txikia eta gutxi izan arren gauza handi asko egiten ari dira bertan eta lau haizetara zabaltzen. Elkarrekin egin dugu kanta, elkarrekin dantza, elkarrekin pilotan, elkarrekin zinean eta *Pelotari(h)itza* emanaldian. Zubia hor dago, zubigintzari esker, zubigileei esker. Ez dadila eten hartuemanan.



maite garmendia



Hurbildu ditzagun

ETXE ALDERA. Enegarrenez elkartu zen jende mor-
doan enparantzan hurbil egon behar luketenak hurbil ditzaten eskatzeko. Semea, laguna edo senide direnen eta espetxeratuta daudenen arteko distantzia ahalik eta txikiena izan dadin bere nahia azaltzeko. Pertsona orok behar duen estimua eta afektua izan dezan bidea errazteko.



Gure esku dago

DENON ESKU. Badator eguna, eskutik eskura elkar oratuko duguna. Durango eta Iruñea lotuko dituen harresia (edo jendesia esan behar harko genuke?) martxan da. Jende andana ari da lanean, isilik batzuk,

kantuan besteak, hitzalditan beste zenbait. Herri, auzo eta hirietan. Eskuek ematen duten energia pilotzen ari da. Askok eta askoren eskuena. Sinergia lortuko da. Bidea eginez, iritsiko gara. Gure esku dago. Denon esku.★

INKESTA

gainbeheran al daغو azpeitian parranda?

A. Agirrezabala/A. Odria

IBAI EZAMA

27 urte



"Nabarmen jaitsi da. Entzun izan dut gaztetxoak Azkoitirako joera hartu dutela, baina nik uste dut parrandaren gainbeheran egoera ekonomikoak eragina duela".

hartzu dutela, baina nik uste dut parrandaren gainbeheran egoera ekonomikoak eragina duela".

AXIER IPARRAGIRRE

17 urte, tabernaria



"Jaitsi da. Hil hasiera edo bukaera izan nabarmen nabari dugu tabernan; eta gainbehera horretan krisiak eta alkoholemiak eragin zuzena dute".*

horretan krisiak eta alkoholemiak eragin zuzena dute".*

Maitasunaz maitasunez

I love my live because my live are you". Negar egiteko gogoia sentitu banuen ere, barrea atera zitzaidan. Paperak txukuntzen ari nintzela ikastolako agenda zahar batean irakurri nituen hitzok, nire letrarik politenarekin idatziak.

Agenda bereko lagunen iruzkinek kontu berdinak zituzten ahotan, bikote idealizatu berdin zoriontasuna, bigarren DBHn barneraturiko ekuazio perfektua. Umetako kontuak direla esanez justifika neza-keen nire burua, baina ez dut egingo. Ingurura begiratuta ez dudalako gauzak gehiegi aldatu direnik sentitzen.

Laranja erdiak omen gara, beteak sentitzeko printze urdina edo printzesa arroxak alboan behar dugunak. Alboan egotearekin nahikoa ez eta, maitasuna benetakoa izatekotan edozeren aurretik egongo da bikotekidea, zure bizitzaren ardatz nagusi eta ia bakar bihurtuz. Bizitza proiektu denak elkartrukatu, maitasunaren berotasuna apaltzean



amaia agirretxe

hipotekek, ezkontzak edo seme alabek lotuko gaituztelarik.

Hetero arauaz ari naiz, maitasun erromantikoaz, bizitza bizitzeko eta harremanak eraikitzeke eredu hegemonikoaz. Maitasuna sufrimendua dela sinetsi dugu, besteagatik dena ematea, urteurren eta sanbalentinak ospatu edo kontsumitzea, uneoro bestea zertan eta norekin dagoen kontrolatzea, maitasunaren izenean edozer justifikatuz.

Ez naiz guztiz eszeptikoa, oraindik sinisten dut maitasunaren magian, maitatzeko eta maitatuak sentitzeko beharrean. Baina bada garaia maitasuna birdefinitzeko, maitatzeko modu berriak eraikitzeko, nor eta nola maite nahi dugun benetan erabakitzeke

Ez nuen agenda zaharra bota nahi izan, hurrengo garbiketarako frogak ezabatzeak ez baitu nire iragana aldatuko. Baina aurtengo agendan letra larriz idatzi nuen "maite naiz, maite zaitut, maite zaituzte!".*

Gal detzen hasita, Lapatxeko zabortegia itxitakoan, Lur-sail horrek zer erabilpen izango duen ba al daki inork? Uztarria

Egunero mediatu

Egunero mediatzera gonbidatzen zaitut. Mediatu? Zer da, ordea, mediatzea? Isiltasunean murgiltzea da, isiltasun ozen eta barean. Ikusten, ukitzen, entzuten, egiten, arnasten duzunari arreta osoa jartzea. Orain eta hemen izatea, denaz eta garenaz ohartzea, Orotasunean bat.

Egin beharraren egin beharrez, bizi ere egin gabe doakigu bizitza. Iritsi beharraren iritsi beharrez, arnastera ere ez gara iristen. Har ezazu egunero tarte bat, luze edo labur, bizi zarela ohartzeko, bakean arnasteko.

Eser zaitex nahi duzun lekuan. Eser zaitex isilik, bizkarra zut, begiak zabalik edo itxita. Geldi, adi, lasai. Zeure buruaren eta den ororen isiltasun ozenean. Zeure arnasarekin, den ororen arnasarekin bat. 15 edo 30 minutu, goiz eta arrats, egunero.

Mediatzea ez da hartaz edo honetaz hausnartzea, gogoeta egitea. Hobe genuke, noski, gehiago hausnartuko bagenu, libreago izateko. Baina haus-




joxe arregi

narketak berak ere aise kateatzen gaitu, geure pentsamenduei, frustrazio eta zauriei, beldur eta proiektuei, atsegin eta gorrotoei eragin eta eragin ari garenean. Eraginago eta lotuago.

Mediatzea ez da ezer ez pentsatzea, ez baita posible. Mediatzea pentsamenduekin ez identifikatzeko ariketa da. Pozgarri zein mingarri, pentsamenduak etengabe datoz, itsasoan uhinak bezala. Datozela, doazela. Ez itzazu uxa, ez zakizkie atxiki. Ez zaitzela eraman, orain hona, gero hara, inora ez. Ez zaitex borroka ezerekin, ez inorekin, ez zeure buruarekin. Begira ezazu dena onez, errukiz, bakean, pentsamenduen hariari edo sokari lotu gabe. Barnera zaitex Bakearen ur handietan.

Meditazioa arreta biltzea da. Zertan? Edozertan. Hitz edo esaldi eder batean, behin eta berriz errepi- katuz. Edo iruditxo batean, etengabe eta samurki begiratuz. Edo arnasan. Arnasa hartu, arnasa bota. Infinitutik Infinitura, Biziazen baitan.*

HAU HOLAXEENK



BERRIZE MODAN GARETXEK!



Piramidea

El Bolsón-en nenbilen, Argentinan, artisaue azokaren inguruan. Azokatik pixka bat aparte, beste postu batek erakarri zuen nire arre: txapitola berri samarra zen, hainbat motatako iturriak-eta erakusgai zituena, eta enpresa baten izena zuen gainean. Bi gizon zeuden, irribarrez, eta bertara gonbidatu ninduten. "Uretan gaixotasun, birus, eta zikinzeria asko egon ohi da, eta gure produktuekin ura garbiagoa da, osasuntsuagoa". Kanpoko nintzela, eta arazteko tresnarik erosiko ez nuela ikusi zutenean, beste produktu bat es-

kaini zidaten: "gure enpresa liderra da sektorean, enpresaren parte izan zaitezke, nahi baduzu. Ederra da nagusirik ez izatea, zeuk zeure denbora antolatzea. Gainera, beste lan bat baduzu, ez duzu lan hori utzi beharrik. Soldata gehigarri bat atera dezakezu, eta uraren arazoa mundu guztian dagoenez, gure produktuak mundu osoan sal daitezke, eta baita zure herrian ere. Pentsatu, emaidazu zure e-maila, eta egongo gara kontaktuan". Baina ez zen hor amaitzen kontua. "Horrez gain, zuk zeuk beste zenbait lagun gonbi-

■■■■■■■■■■ eñaut frantzesena ■■■■■■■■■■

datu ditzakezu gure produktuak banatzera, eta horrela, haiek saltzen dutenetik ere onura ekonomikoa jaso dezakezu". Eta produktuen katalogoak eman zizkidaten, negozio-aukera izan daitekeela zioen beste diptiko bat, eta beraiekin kontaktuan jartzeko telefonoa.

Eta gogoratu nuen ziklikoki gure artera etortzen direla horrelako 'negozioak', jendearen dirua, eta jendea, harrapatzen dutenak. Hasieran dirudi negozio ona dela, baina azkenean, piramidearen goiko aldera joaten da dirua, eta behe aldera etsipena eta haserre.✘



'Ignacio. Los años de la espada'


Duela urte batzuk, Europa pixka bat gehiago ezagutu asmoz Txekiara abiatu ginen. Praga ikusi genuen lehenik, baita ikaragarri gustatu ere. Gizon-emakume guztien ondare deklaratu dagoen Kutna Hora herria gomendatu ziguten eta kotxe bat hartu eta han geunden pare bat ordu geroago. Herri hau benetan polita da, turismoak 'kutxatu' gabekoa. Bertako bizimodua ere Pragarekin konparatuz, txekiarragoa.

Beste leku askoren artean, Santa Barbara izeneko ikaragarriko eliza dago. Taldetxo bat osatu eta monumentu hura erakutsiko zigun gida azalpenak ematen hasi zen. Hormetako batean pertsona baten irudi handi bat zegoen eta gidak zera galde-tu zuen:

–'Ez dakit ezagutuko duzuen baina santu famatu bat da hau'.

■■■■ KRIKITA ■■■■■■■■■■

'Ignacio: Los años de la espada' liburua



Autorea. Jose Luis Urrutia.
Argitaletxea. Txalaparta, S.L.
Argitalpen urtea. 2005.
Orrialde kopurua. 385.
Generoa. Nobela Historikoa.
Salneurria. 19 euro.

–Guk orduan: 'Herri berekoak gera!'

–'Nola?'; ezin liteke.

Harrিতa geratu ziren guztiak eta taldeko gainerakoak santuari buruzko galderak egiten hasi zitzaizkigun. Gidak pentsatu zuen berak baino gehiago jakingo genuela santuaz baina ez, guk baino askoz gehiago zekien, nahiz eta Loiola ez zuen ezagutzen.

Hura izan zen niretzako abiapuntua azpeitiar honetaz gehiago jakin behar nuela erabakitzeke eta hala 'Ignacio. Los años de la espada' liburua erosi nuen.

Nobela Historikoa da eta bere bizitza zer nahasia izan zen erakusten du. Famili oneko semea, Espainiako hainbat bazterretan ikasi eta lan egin zuen. Lige eta liskarrak ere bapo. Urtero karnabaletan Azpeitira itzultzen zen, anaiekin parranda galantak botatzera.



■■■■■■■■■■ luix juaristi ■■■■■■■■■■

Hainbat gerra eta gatazkatan parte hartu zuela ere kontatzen da nobela interesgarri honetan. Zauri baten ondorioz jaioterrira itzuli ondoren bere bizitzak zer aldaketa jasan zuen azaltzen du.

Ez dut gehiegi esplikatu nahi; liburua irakurtzea duzue onena. Bakarrik esan, nobelaren deskribatzen den erara, sekulako mutil egoskorra zela. Munduan leku askotan bere ondarea utzi duen pertsonaia kontrobertitua.

Azpeitiar bezala aholkatzen di-zuet gure herritar hau pixka bat gehiago ezagutzea. Merez du.✘

AIZPURU AUTOAK

Landeta auzoa - Telf: 943 81 23 59

Faxa: 943 81 22 81 20730 Azpeitia

aizpuru@aizpuru.net



Arana, 5
AZPEITIA Tel: 943 81 47 12

arte eta diseinu ikastegia

di

- Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00
- Pintura 17:30/19:00
- Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik



▲ OLAZKO MOJAK.

Izatez ez da moja elkarte, Dolores Sopena institutu kateketikoa, baizik. XX. mende hasieratik daude Azpeitian. Loiolako Inazioaren oihartzunak eraginda etorri ziren. Euren lehenbiziko etxea Olazko komentuaren atzealdean izan zuten. Beraien helburua langilegoaren inguruan egotea izan da beti. Emakumeen heziketa eskola ere izan da: sukaldaritza, jostketa... Une honetan, eraikinaren erdi batean, komunitatea bizi da –adinekoak erretiratzeko lekuetako bat da– eta beste erdian, uda aldera, ordena barruko eta famillako jendeak hartzen du ostatu.



▲ KRISTO ERREGE.

Ordena horretako mojak egon ziren garai eraikinean. Gaur egun, gogartetxean dauden ordenako lekaiameak. Jesuiten inguruan laguntza bezala sortu zen elkarte. Mar ahizpak, Errekartetxo baserrikoak, ordea gogartetxean bizi dira. Anajesus Gurrut gogartetxera etortzekoa da Erromatik.

Erlijio aztarna ugari

Herrian bada komentu eta erlijio-egoitza ugari. Herriko paisaiaren parte diren eraikuntza erraldoi horiek argazkitan jaso ditu Uztarriak. 📷📍 A. Agirrezabala



rai batean argazkiko
 aude Kristo Errege
 n gogojardunetarako
 itxu eta Marianjeles Azkune
 n horretakoak dira eta
 xaga urrestildarra ere



▲ JESUITAK.

1556an hil zen San Inazio eta urte batzuk lehenago, San Inazioekin sortu zen Jesusen lagundia. Koadrila zabala bildu zuen San Inaziok, maisu eta biltzaile izan zen. Adineko talde zabala dago hor erretiratuta, erizaintza zerbitzuarekin. Gogartetxeke arduradun Damian Picornel albacetearra bertan bizi da. Tuterako Txema Vicente da jesuiten elkarteko buru. Jose Luis Zinkunegi errezildarra, berriz, basilikako elizkizunetako burua da. Oso leku aberatsa da udan, badu bizitza, Loiola bisitatzera kanpotik datorren jende asko izaten baita.

► SIERBAK.

100 urtetik gora daramate herrian. Hasieran, Enparan kaleko 40. zenbakian eta Frontoi Txiki ondoko apaiz etxean egon ziren. Etxetako gaixoak zaintzea izan da haien egitekoa. Tentsioa hartu, injekzioak jarri, belarritakoentzako zuloak egin... ere bai. Argazkiko etxea lehen pintura biltokia zen. 'Sierba' izango diren lekaimagaien prestakuntza lekua ere bada.





▲ JESUS MARIA.

100 urte pasa egin dute herrian. Heziketara dedikatutako elkarteak izan da. Denborarekin, erlijioso hauek auzo pobreetara zabaldu dira. Egun, konbibentzia etxea da; aterpetxe bat ere badute eta gogojardunetarako zerbitzua eskaintzen dute. Komunitate barruan adineko jendea ere badute. Lehenengo beraien kokapena Don Peperen etxea izan zen, Pablo VI.a auzoan.

▶ KARIDADEKO ALABAK.

Bi zerbitzu bete zituen elkarte erlijiosoa izan zen. Gaixo eta behartsuak zaintzera etorri ziren, 1860 inguruan. Baina, gero, eskolak emateko beharraz jabetu eta hezkuntzara ere dedikatu ziren. Azpeitiko miseriak bere historia du: Bustinzuriko Errebalean, senar-emazte batzuk herriko gaixoei laguntzen hasi ziren eta hiltzean euren ondasunak kausa horretara bideratu zituzten. Orduan, udalean bilera bat egin eta Artzubian jarri zuten martxan zerbitzua, han ipar-ekialdeko haize osasungarria zegoela-eta.



▲ FRANTZISKANAK.

Klausurakoak dira. 500 urtetik gora daramate Azpeitian; herriaren beraien zeregina otolitz egitea da. Elkarte honek lehenbizikoa izan zen. Egun hamaika moja daude, tartean azpeitiarrak: Urba



▲ BETHARRAMDARRAK.

Plaza nagusian zen udalaren eskolako ardura Maristek utzi zutenean etorri ziren Betharramdarrak. Betharramdarrak eta, geroago, Milagrosakoek alde egitean egin zuten bat hiru eskolek Iraurgiren babespean.





erriko ordena zaharrena da.
ko kokapena Elormendin izan
anonekoa, badiolatarrak...




▲ JESUITINAK.

Hezkuntzara dedikatzen dira. Andoaindarra da sortzailea. Lehenbizi, Enparan kalean egon ziren. Argazkiko eraikinean iada ez dago komunitaterik. Jesuitinak Andoainen badira eta Donostian ere bai. Garai batean, udaletxean San Agustin komentua egon zen eta Santo Domingo kalean –oraingo Goiko Kalen– Dominikoak egon ziren.

▶ ESKLABAK.

1902an etorri eta 1999an alde egin zuten. Ordena erlijioso hau ere hezkuntzara dedikatu izan da. Gaur egun, Donostian eta Bilbon daude Esklabak.



Mende erdia pasatu da Iturri Txikin ateak zabaltzear zen Udal Liburutegia bedeinkatzen zuen apaizaren zuri-beltzeko inaugurazio ekitaldi hartatik. Geroztik, 50 urteko ibilian, literaturaren eta letren erreinua majo aldatu da eskaintzen duen zerbitzuari dagokionean ez ezik, lana egiteko moduan. Horren lekuko dira liburutegiko langile ohi Joxe Mari Galarraga (Azpeitia, 1959) eta gaur egungo langileak: Beatriz Aranbarri (Azpeitia, 1963), Maider Egiguren (Azpeitia, 1977) eta Eba Lopetegui (Azkoitia, 1972).

Irakurtzeko "zaletasun handia" izan zen liburuzain oposaketetara aurkezteko Galarragaren arrazoia. Plaza lortu eta hasi zen liburutegian lanean, 1984ko urtarrilaren 10ean. 24 urte zituen. Nolanahi ere, irakurtzeko amorru handiam bai, baina ordura arte liburutegia apenas zapaldu zuen. "Azpeitiko herriaren orduko argazkia ikusiz gero, gaurkoaren oso bestelako itxura zuen", dio Galarragak. "Alde Zaharra zegoen, eta herri-ingurua. Ni Etxetxon jaio nintzen, gaur egun Euskal Herria auzoa dagoen lurretan zen sei bizitzako baserrian. Garai haietan, handik plazara joatea orain Matxinbentatik etortzea bezala zen. Ez zegoen kalerik, ez zeudn Betharramistak, eskola nazionala zegoen, Perdillegi baserria, Goiko Errota eta kito. Ilunpea. 1964an liburutegia zabaldu eta hasierako urte haietan kaletarrak baino ez ziren joaten bibliotekara. Ni liburuzain hastean, eskolako gazteak ibiltzen ziren, batik bat".



Iturri Txikin zabaldu zuten Udal liburutegi publikoaren inaugurazioko argazkia, 1964ko apirilaren 5ean. |||Dio

Letren erreinuan

Udal Liburutegiak ateak zabaldu zituela mende erdia beteko da, apirilean. Garai bateko eta gaur egungo langileekin hitz egin du Uztarriak. 📖👁️ Ainitze Agirrezabala



nisió Maso

Urte haietan, maileguan hartzeko ez zegoen dokumentu asko ere, baina Enparan Dorretxera aldatzean, 1989an, eta handik aurrera, "aurrerapauso handiak eman" zirela dio: "material aldetik asko hornitu zen eskaintza; hizkuntza aldetik euskarazko produktu gehiago zegoen; liburutegia handituz joan zen eta lana egiteko moduan ere garai berrietara egokituz joan izan gara. Maileguan atera ezin ziren liburuekin lana egiteko, fotokopiagailu zerbitzua eskaintzen hasi ginen. Dokumentuen katalogazioari zegokionean, hasieran fitxak eskuz idazten genituen; gauza bera maileguekin. Gero, makina txokolatera bat izan genuen eta, aurrerago, ordenagailua".

Internetari, 380 graduko bira

Gaur egun Azpeitiko Udal Liburutegian libu-

ruzaina den Aranbarrik ere hala dio, Interneten erabilerak "lana egiteko modua asko erraztu" duela. "Duela zortzi urte, 2006an, hasi nintzen bibliotekan lanean eta, hasieran dena eskuz egiten genuen; liburutegiko dokumentu guztiak tiradera batean genituen autorearen edo tituluaren arabera alfabetikoki ordenatuta. Liburu bat mailegatzean ere, 18 lekutan apuntatu behar izaten genuen erreserba. Orain, berriz, Internetarekin azer nolako aurrerapena!".

Udal Liburutegiak sarean duen webgunea, esaterako, erabiltzaileentzat "oso erabilgarria da" Egigurenen esanetan. "Nahi den liburua EAEko zer liburutegitan dagoen kontsultatu dezakezu; Azpeitiko liburutegian hilerero sartzen diren dokumentu berri guztiak ikus ditzazkezu nobedadeen atalean; erre-

|||50 URTEOTAKO IBILIA|||||

LIBURUTEGIAREN IREKIERA.

Bileran, guztien adostasuna. 1964ko martxoaren 10ean, bilera egin zuten Udal Liburutegi Publikoko Batzordeko kideek eta Juan Astigarraga Viquendi alkateak, liburutegiak etorkizunean izan beharreko funtzionamendua hitzartzeko. Aktan jasotzen denez, aho batez onartu zuten apirilaren 5ean inauguratzea eta publikoarentzat hurrengo egunean, apirilaren 6an, zabaltzea.

Funtzionamendua. Liburuen mailegurako, 4 urtetik gorakoek 50 pezeta ordaindu behar zuten urtean edo 5 pezeta hilean. 10etik 14ra artekoek, berriz, hiru pezeta hilean. Ordutegiari zegokionean, egunero zegoen zabalik, larunbatak eta jaiegunak izan ezik, 19:00etatik 21:00etara. Liburuen mailegurako 15 eguneko epea zegoen, gehienez. Atzeratutako egun bakoitzeko pezeta bat ordaindu behar zuen irakurleak. Liburutegiko gastuei aurre egin eta diruz laguntzeko, herriko enpresei zirkular bana bidali zitzaien.

LIBURUZAIN POSTUA.

Oposaketak. Imanol Elias alkateak eta kultura zinegotzi Maria Jesus Aranburuk bibliotekari posturako oposaketak deitu zituzten, 1983an. 1984ko urtarrilaren 10ean hasi zen Joxe Mari Galarraga lanean. **Ordutegia zabaldu.** 1984an, 16:00etatik 21:00etara zabaldu zuten zerbitzua.

ARO BERRIA.

Leku aldaketa. Iturri Txikitik Enparan Dorretxera lekualdatu zuten biblioteka eta 1989ko abenduaren 13an, Santa Luzia egunean, inauguratu zuten.

Pauso kualitatibo eta kuantitaboa.

Egun osoz hasi ziren irekitzen eta material aldetik asko hornitu zen biblioteka.

Birmoldaketak. 1992an beheko solairu osoa hartu zuen liburutegiak. 2004an, irisgarritasuna bermatu eta oztopo arkitektonikoak kentzeko lanak hasi zituzten: elbarrien komunak eta eskaillerak saihesteko igogailua eta arrapalak jarri, eraikinerari sartzeko zubia egin... Egun, beheko solairuan hiru gune daude: haurrena, gazteena eta hemerroteka. Lehen solairuko aretoari helduentzako liburutegi eta ikasgela erabilera eman zioten eta bigarren goian ikasketak eta talde lanetarako daude. **Teknologia berrietara egokitu.** Etengabe eguneratuz joan da liburutegia.

►serbak egin, mailegu-epea luzatu edo proposamenak egiteko aukera ere eskaintzen du”.

Hilero, dokumentu berriak aukeratu eta erosteaz Aranbarri arduratzen da: “200-300 dokumentu berri sartzen ditugu hilero, eta horiek aukeratzeak lan-ordu asko ematen du. Multimedia txokoa mugimendu handia izaten da, eta hilero 50 bat DVD berri ekartzen ditugu. Jendeak asko mailegatzen ditu pelikulak: jubilatuek *westernak*, txikienek pila-zoenak... Horrez gain, jendeak dohaintzan ere ekartzen ditu liburuak bibliotekara”.

Zerbitzu hobea eskaintzeko beti dago zer hobetu, eta *e-book*etarako softwareak maileguan ematea da hurrengo helburua. Aranbarriren esanetan, “egun jende asko dator liburu digitalaren kontuarekin edukiak mailegatzeko asmoz, baina momentuz ez dugu ezer. Eusko Jaurlaritzak plataforma abian noiz jarriko zain gaude, sistema oso garestia baita”.

Gizonezko erabiltzaileak, ugari

Garai berriekin nabarmen aldatu dira erabiltzailearen perfila eta informazioa kontsultatzeko euskarriak ere. Aranbarri dioenez, “betiko erabiltzaile nagusiak emakumeak eta umeak izan dira, eta jubilatuek ere bai, baina krisiaren eta seme-alaben eraginez edo, 35-50 urteren bueltako gizonezkoen taldea asko ugartu da. Liburutegian birmoldaketa egin zenetik, ikasle kopuruak ere gora egin du. Eta, noski, Oti 7 urtera arteko gunea ere beteta izaten da”. Era berean, teknologia berriren erabilerarekin, kontsultak egiteko garaian, papereko euskarriaren gaitetik dago



|||“Liburutegiaren ibilbidean, lanean aritu direnek garai bakoitzera egokitzeko sena izan dute”

JOXE MARI GALARRAGA
liburuzain ohia

||| DATUAK ZENBAKITAN |||||

33.626 dokumentu
dituzte liburutegian. Horietatik 14.219
(%42,29) euskarazkoak dira; 16.253
(%48,33) gaztelarazkoak eta 3.154
(%9,38) beste hizkuntzetan daude.

4.980 bazkide ditu.

47.179 erabiltzaile
izan zituen liburutegiak, 2013an.

38.609 mailegu
egin ziren, iaz; helduen atalean 20.611; haur
eta gazteenean 16.257, erakundeen arloan
362 eta liburutegi arteko maileguak 1.379.

16.871 euskarazko
maileguak izan ziren; gaztelarazkoak 20.464,
891 ingelesezkoak eta 383 bestelakoak.

4.329 pertsonak erabili
zuten iaz liburutegiko Wifia.

25 urte beteko dituzte aurten ipuin-
kontaketek. 1989an egin zuten lehen saioa.

271 liburutegi daude EAEko
liburutegien arteko sarean, eta biblioteken
artean maileguak egin daitezke. Eskaintza
asko zabaltzen du; abantaila handia da.

6 ordenagailu daude: behe solairuko
gazteentzako ikasgela hiru eta lehen
solairuko helduenean beste hiru.
Ordenagailu finkoetz gain, eramangarriak
konektatzeko modua ere bada.

250 dokumentu inguru
erosten dituzte hilero liburutegirako.

25 pertsonako taldeak hartzen
dute parte liburutegiko literatur saioetan.
Urtean lau bat solasaldi izaten dira.*

Guneak definituta



Lehen hiru guneak -txikienezko txokoa; gazteentzako ikasgela; multimedia, mediateka, hemeroteka eta prentsa txokoa- behe solairuan daude. Laugarren argazkian, lehen solairuko helduen ikasgela. Azken biak, hirugarren solairuan dauden talde-lanetarako gunea eta ikasteko gela isila dira.

Interneta. "Tarteka jubilatzen bat etortzen da entziklopedia kontsultatzen, baina egun denok Internetera jotzen dugu. Halere, bi euskarriak erabiltzen ohitzea garrantzitsua da; izan ere, urteetan biak elkarrekin biziko dira.

Liburuzain eta aholkulari

Liburuzain bezala, liburuen gaineko aholku asko ematea egokitu izan zaie lauri. Lopetegiren esanetan, "hainbeste libururen artean hainbat jende galduta sentitzen da eta jendeak asko estimatzen du esatea halako liburu irakurterra dela edo beste halakok arrakasta handia duela. Liburu batzuk komunikabideen eraginez-edo modan jarri dira eta, esaterako, *Dime quien soy* edo *El tiempo entre*

costuras liburuek bi urteko itxaron zerrenda dute. Irakurtzeko zaletasun handia dugu, eta nobedadeen berri jakin eta, ondoren, erabiltzaileak aholkatzeko eskuarteetan beti liburu bat izaten ahalegintzen gara".

Galarraga, esaterako, ez da *best seller* zalea. Saiakera eta poesia ditu gustuko. "Nik erabiltzaile bati esan diezaioket halako liburu harrapatzak ari direla irakurtzen, baina aholkatze kontua oso pertsonala da. Nik aholkatzen dudana esaldia da 'ikusita eta erabili'. Alegia, denbora hartu liburuak aukeratzeko".

Anekdotak, berriz, pila dituzte. "Ixo hitza auskalo zenbat aldiz errepikatu izan nuen, -dio Galarragak-. Baita kaleratze kolektiboa egin eta liburutegia hustuta laga ere. Batzuk

lanera etortzen ziren; besteak galaraztera. Jende aurreko lanak berekin dakartza gazi-gozaok". Aranbarrik adierazi duenez, "liburuak azaldu izan zaizkigu barruan argazkiren batekin, postalekin, fakturekin, salaketaren batekin... Halakoetan, detektibe lanak egiten ditugu, norena den arrastoa ateratzeko. Gai nontzean, jendea arduratsua eta txukuna da; ondo zaintzen dituzte liburuak".

Liburutegiaren ibilbidean, lanean aritu direnek garai bakoitzeko beharretara egokitzen "sena" izan dutela gaineratu du Galarragak. "Erabiltzaileei zerbitzu egokia eskaintzeko, ezinbestekoa da zerbitzua etengabe eguneratzea eta hornitzea, eta Azpeitiko liburutegiak bermatzen ditu erabiltzaileen beharrak".*



||| "Egun, denok Internetera jotzen dugu kontsultak egitera, baina bi euskarriak erabiltzea garrantzitsua da"

BEATRIZ ARANBARRI

liburuzaina



||| "Liburutegiaren webgunea erabilgarria da oso kontsultak egiteko, nobedadeak ikusteko..."

MAIDER EGIGUREN

liburuzaina



||| "Hainbeste libururen artean, jendeak asko estimatzen du liburuen inguruan aholkatzea"

EBA LOPETEGI

liburuzaina



"Il Partigiano" azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egindako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

Telefonoa
943 08 09 13

Ildefonso gurrutxaga, 12 behea

Dantzara, plazara

Fandango eta arin-arinei gaina hartu diete mutxikoeak, Iparraldetik Hegoaldera zabaldu den erromeria molde berrian. Azpeitiari ere iritsi zaio txanda. 📌 Mailo Oiarzabal

Iparretik hegora hedatzen ari den olatua da mutxikoena, eta Azpeitia ere bereganatu du dantza-uhinak. *Erdizka, pika, dobla, luze eta ebats...* Halako eta antzeko aginduak, doinuan tartekatuta, ohiko bihurtuko dira herriko plazan hilero bigarren igandetan, 12:00ak eta 13:30ak artean. Lehenengo hitzordua martxoan izango da, hilaren 9an, hain zuzen.

Hegoaldean soinu txikiaren eta panderoaren erritmoan egiten diren erromeriak bezala, Iparraldean jauzi dantzak, eta horien barruan bereziki mutxikoak, izan dira eta dira dantzaldirikoietan nagusi. "Baionako festetan-eta jende guztiak egiten du dantza: ume, heldu... denetik ibiltzen da", azaldu du Luis Alberdi *Beltza*-k. Orain dela gutxi arte, ordea, mutxikoak nahikoa arrotzak izan dira Hegoaldean, baita euskal dantzetan murgilduta ibili den jendearentzat ere. Dantzari eta dantza irakaslea da Alberdi aspalditik, baina mutxikoak orain arte inoiz ez dituela landu aitortu du: "Urteak daramatzagu hemen dantzak erakusten eta ikasten, Sahatsan, Itsasin... baina mutxikoen pausoak sekula ez ditugu egin izan. Zuberoako dantzak-eta egiten ditugu, baina mutxikoekin zerikusirik ez dutenak".

Azken urteetan, baina, mutxiko dantzaldirak asko eta azkar ari dira hedatzen, Gipuzkoan bereziki, eta Bizkaian ere bai. 2010aren bueltan Oskorri taldeak hainbat grabazio egin zi-



'Hebentik... zubiak' asteburuan plazan egin zen dantzaldira. ||| Sanagustin kulturgunea

tuen, mutxikoetan dantzaten diren hainbat pauso erakutsiz eta abar. Ordurako baziren mutxikoak irakasten zituzten taldeak, Donostian edota Irunen, baina Oskorriren lanaren hedapenak bultzada berria eman zion Hegoaldean Iparraldeko dantza molde horri. Gaur egun, mutxikoak plazan dantzatu nahi dituenak igandero du aukera, batean eta bestean, goiz eta arratsalde. Bada halako egutegi bat, herri bakoitzak egun eta ordu jakinean ditu hitzorduak. Aurrerantzean, Azpeitiak ere bai, bigarren igandeko eguerdi partean.

Erraza, eroso

Luis Alberdik Azpeitiko Ikastola Ikasberrin ematen dituen saioen bidez iritsi dira mutxikoak Azpeitira. Hemeretzi urte daramatza ikastolako gurasoei euskal dantzak erakusten, "fandangoa, arin-arin, banakoa, aurrekua, zinta-dantza, arku-dantza, polkak... denetarik". Mutxikoekin, berriz, aurreko ikasturtean hasi zen. "58, 55, 66 urteko ikasleak dira eta dantza bat edo beste egiteko, ondo. Baina, noski, ordu eta laurden edo ordu eta erdiko saioan, azkenerako 'plof' egiten zuten. Beraiek hasi zitzaizkidan beste zerbaiten eske, gutxiago nekaraziko zituen zerbait nahi zutelako. Horrela hasi ginen mutxikoekin eta, egia esan, arrakasta handia izan du; aurten jende gehiago hasi da taldean".

Bederatzi eta dozena bat tarteko ikasle kopuruarekin ibiltzen zen Alberdi lehen. Aurten, berriz, hogeitaz laguneko taldea elkartzen da asteen bitan ikastolako ganbaran, eta ikastolako guraso ez direnak ere batu zaizkio talde-ara, mutxikoek erakarritu. "Baigerakoek han arratsalde klaseak ematea eskatu zidaten, baina ezin nuen. Orain, jubilatuetako jende bat Ikasberriko saioetara etortzen hasi da". Alberdiren esanetan, adin batetik aurrerako jendearentzat bereziki aproposak dira mutxikoak. "Pausoak oso herrikoiak dira, eta oso errazak, adibidez, jende helduarentzat. Mutxikoek oinez ibiltzea eskatzen dute; tartean behin jauziren bat egingo duzu, baina ez da bortitza". Hala ere, gazteak ere mutxikoetan hasi direla dio, "beraien herrietako dantza taldeetan ikasten hasi direnean". Alberdik



Iñaki Urbistondo, Maite Arrizabalaga eta Juanita Urdanpilleta. ||| **Mailo Oiarzabal**

berak ere egin du saiakera ikasturte honetan, Betharramen umeentzat duen eskolan.

Eta geurea

Azpeitiko Kultur Mahaiaren eta Sanagustin kulturgunearen ekimenez eta Luis Alberdi berarekin elkarlanean jarriko da abian Azpeitiko mutxikoen hileroko erromeria. Elkarlan horren lehen fruitua *Hebentik... zubiak* asteburuan ikusi ahal izan zen, otsailaren 9an. Orduko hartan, Zuberoatik etorritako lagunekin ez ezik, Zarautzik etorritakoekin ere aritu ziren Azpeitiko mutxikozaleak, Itsasiko eta

Sahatsako kideak, eta Alberdiren ikasleak, Iñaki Urbistondo, Maite Arrizabalaga eta Juanita Urdanpilleta tartean zirela..

Hirurek aitortzen dute mutxikoekin "oso gustura" ari direla, eta hemendik aurrera Azpeitian plazan aritzeko izango duten aukera "ahal dugunetan behintzat" probesteko asmoa dute. Arrizabalaga Azpeitian hasi aurretik ere aritzen zen mutxikoak ikasten, Zarautzen. Aurten bietan ari da eta, horrez gain, asteburuetan batera eta bestera ibiltzea gus-tatzen zaio, mutxiko dantzak non, hara joanez. Urbistondok eta Urdanpilletak, berriz, Alberdirekin ikasi dituzte pausoko. "Oso erraza da, eta oso polita", dio taldeko gizon-zko bakarrak. Mutxikoekin beste dantza batzuk ere tartekatzen direla azaldu du Arrizabalagak, "valsak, polkak, fandangoak edo arin-arinak". "Batere monotonoa ez" zaiola egiten berretsi du Urdanpilletak. "Gainera, eroso, erraza eta polita izateaz gain, geurea ere bada. Ditugun altxor hauek ezagutzea eta zabaltzea oso interesgarria da". Dantzarako gogoia duenak hor du aukera berria.✳

||| "Ez dira dantza zailak.
Eta orain Hegoaldean ere
indar handia hartzen
ari den genero bat da"

LUIS ALBERDI
dantza irakaslea

ODRIOZOLA ARDOAK

Egin klik eta bisitatu gure denda birtuala

www.catandovino.com

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16

Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103



Kontaktu intimorako moduak

Ohiko bikoteek sarritan topaketa erotikoean gauza berriak egin nahi dituzte, osagarri berriak txertatu eta euren intimitateko ohiturak berritu. Baina askori oso erronka zaila iruditzen zaie kamasutretako ehunka kokapen eta jokaera berri modu akrobatikoan gauzatu beharko dituztela irudikatzen dutelako. Harremanak berrizatzeko, gauza txikiak pixka bat aldatzearekin, ordea, emaitza oso onak izaten dira eta ez da gaitasun berezirik behar, gogoia besterik.

Oso arrunta da, espreski adostu gabe ere, sexukideen artean arau edo erreglamentu inplizitu bat egotea. Espero dena eta ez dena arautzen duena pribatuki. Ustez, araudi hori eurek sortu dutela senti dezakete, baina neurri handi batean, normaltzat jotzen dutenari lotua dago eta beraz, kanpotik ezarritako norma bat izan daiteke.

Horrela, bikote askok euren harreman erotikoean, bereziki gizon-emakumeak direnean, espero dute bagina sarketa egitea. Lehen mailako jokabidetzat joz. Baita ere ezarri dute, biek bizi behar dutela orgasmoa. Orgasmoa bagina sarketan zehar gertatu behar duela ondorioztatu dute, eta orgasmoa biek batera ez badute, beti orden berean eman behar da, adibidez, lehenengo emakumeak eta gero gizonak. Gizonezkoak denbora guzti-guztian zakila tente izan behar duela da beste araua. Zakila tente ez badago edo isurtzen badu, orduan topaketa erotikoa bukatutzat eman dezakete askok. Baina, gizonezkoak ez du zertan denbora guztian zakila tente izan behar, joan daiteke hozkailura, coca-cola bat hartu eta itzuli eta harremanetan jarraitu, edo altxa, musika CDa aldatu eta bueltatu, presarik gabe, zakila gogor egoteari utziz. Gainera, topaketak gauez izatea espero dute eta ohean. Beraiek, elkarrekin egonda, masturbatzea ez dago ongi ikusia. Eta laztanen eta elkarren gorputzak ukitu edo dastatzearen helburua, berotzea da, sarketara iristeko tresna bat.



|||||||||||||nerea sancholli|

|||Gizonezkoak ez du zertan uneoro zakila tente izan; hozkailura joan daiteke, coca-cola bat hartu eta itzuli

|||Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:
Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.com/sexu 688897920

Bikote bakoitza mundu bat da eta arau hauetako batzuk, denak edo batere ez hartzen ditu beretzako.

Arauak aldatzearen efektua

Bikotekidearekin dugun harreman erotikoean berpizteko zer egin daiteken jakiteak ez du balio ordea, EGIN egin behar da, probatu, esploratu, ezezaguna dena ezagutzera hurbildu, sentitu eta dastatu lehen pertsonan, orain eta hemen.

Zein arau berri ezarri dezakegu? Bagina sarketarik egin gabe plazera eman eta jasotzeko modu berriak bilatzea denboraldi batez. Orgasmoa helburua ez izatea izan daiteke araua. Edota orgasmoa bagina sarketatik kanpo izatea. Orgasmoak baldin baditugu, orden desberdinean izan.

Gizonezkoak isuri eta gero harremanak ez du zertan amaiera ikusi beharrik, hainbat jokabide erotiko egin daitezke ondoren. Egunez harremanak izatea aukera ederra izan daiteke, ohetik kanpo, etxean, edo mendian, edo autoan, edo...

Arau txiki bat aldatu eta ikusi zer gertatzen den!*



**BADIRA ATE BAT IREKITZEAN
HASTEN DIREN PROIEKTUAK**

“ Enpresa, ekintzaile eta
ikerlari berritzaileen
esperientzietatik
ikasten dugu.

Nerea Txintxurreta,
Mekanikako Ingeniaritza,
3. maila.



PREST



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRI · MARTXOAK 15
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · MARTXOAK 20
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

DONOSTIALDEA · MARTXOAK 27
Osteguna, 17:30 / Orona Fundazioa

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · MARTXOAK 15
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · MARTXOAK 22
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · MARTXOAK 29
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · MARTXOAK 6
Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · MARTXOAK 6
Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 22
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



“Ez da zaila egunerokorako makillatzen ikastea, edonork ikas dezake klase gutxi batzuekin”

Makillajearen munduan lan egiteko, zer formazio duzu?

Makillaje ikasketak egin nituen duela hamabost urte eta, harrezkero, makillajearen munduan ari naiz lanean. Urte guztiotan, etenik gabe formazioa jaso dut hainbat ikastarotan parte hartuz, eta aurrerantzean ere ikasten jarraitzeko asmoa dut, niretzat garrantzitsua delako makillaje mota desberdinetan trebatzea. Horregatik, edertasun makillajeaz gain, efektu bereziak, karakterizazioa eta abar ikasi ditut.

Telebistako lanaz gain, urteotan zer arlotan aritu zara?

Hamaika urte daramatzat ETBn lanean. Horrez gain, antzerkian, publizitatean, film laburretan, argazki saioetan, musika bideoetan, makillaje klaseak emanez eta opera batean ere lan egin dut.

Zer da eskaintzen duzuna?

Esan bezala, gaur egun ETBn dihardut, baina etxetxeko saioak ere eskaintzen ditut. Alde batetik, automaki-

llajeko klaseak eskaintzen ditut banakakoentzat nahiz talde txikientzat, euren etxera joanda. Norbere burua apaindu eta probetxurik handiena ateratzeko klase pertsonalizatuak dira. Klase horietan, egunerako nahiz gauerako makillaje irakasten dut. Ez da zaila egunerokorako makillatzen ikastea, edonork ikas dezake klase gutxi batzuekin!

Automakillajeko klase horiez gain, zer beste eskaintzen duzu?

Ezkontza edo bestelako ospakizunetarako makillajeak ere egiten ditut, bezeroaren etxera joanda. Momentu bakoitzera egokitutako makillajea, bisajismo edo aurpegi bakoitzaren arabera, makillaje desberdinak lantzen ditut. Ezkongaien kasuan, esaterako, alde aurreko proba bat egiten zaie makillajea erabakitzeke, eta ezkontza egunean beraien etxera joaten naiz.

Bada beste ezer esan nahi duzunik?

Esan bezala, ospakizun desberdinetarako ere makillatzen aritzen naiz. Normalean, ospakizun bereziak direne-



an, jendeak gustuko izaten du profesional baten lana, eta asko eskertzen dute makillatzailea euren etxera bertara joan eta pertsonalizatu-

tako makillajea egitea. Automakillajeko klase horiek, aldiz, oso probetxugarriak izan daitezke eguneroko bizitzarako.*

OLAIA ARKAUZ
makillatzailea

Tlf. 619 311 535
olaiarkauz@gmail.com

ZP 700

5 KOLORE AUKERAN

QUAD CORE 1,3 GHZ

6B 1eko RAMa + 4 GBdun ROM

4,7' -ko PANTAILA

8 MEGAPIXELDUN KAMERA

zopo
banatzaile ofiziala

MOVILQUICK AZPEITIA

Jose de Artetxe 8, behea

Tel: 943-812231

azpeitia@movilquick.net

movilquick
zure zerbitzu teknikoa

EC English Courses

Londres

Dublin

Oxford

Enpresentzat
ikastaroak

Ikasleentzat udako
ikastaroak

AZTERKETA ZENTROA

- Ikas ezazu azterketa ofizialak gainditzeko: Cambridge, IELTS (International English Language Testing System) edota BULATS (Business Language Testing Service)
- Ikas ezazu negozioetarako ingelesa Londonen edo Dublinen, mundu osoko beste profesional batzuekin batera.
- Udaberri eta udako egoitza-eskolek haur eta gazteentzako ingeles eskolak eskaintzen dituzte, ekintza aukera zabalarekin.
- Ingeleseko o irakasleentzako ikastaroak.
- Beste hizkuntza batzuk ikasteko aukera: frantsesa, alemaniera, japoniera, chinera edo errusiera.

Harremanetarako:

Tony 685209875 / phlaaps@yahoo.com

HITZ GEZIDUNAK



Egilea:
Luma

	Egiatan!		Bururatuak		Arma		Gipuzkoan, dut		Nahasirik, nahaspilaturik
	Hautatze, hautaketa		Maiz, sarri		* Deitura		Xakeko pieza		
	Isurtzea								
	Ahuntzaren ar								
Onatiko		Arrainen presondegi							Hidrogenoa
* Izena		Oso-oso garbia							Ez dira errazak
				Edontzi sakratua					
				Itsasoko ur					
Areago			Kontsonantea		Zaren hori			Artsenikoa	
Ogi saskiak			Edari bizia		PPren aurrekaria			Eguna	
							Du, niri		
							Kolpearen onomatop.		
Idi, hitz elkarketan			Erietxe						
Ibai ahoetako arraina			Aurrean du umilak						
					Musika ikurrak				
					Bokala				
Palestinako hiria						Gorotza			

* Politikari azpeitiarra

SUDOKUA

6	7	4						
							4	6
			5					2
	1	3	2	4				
		9				3		
			5	3	4	9		
9				7				
2	5							
					2	8	3	

ANTONIO RAFANIELLO
HORTZ KLINIKA

Titaniozko inplanteak: 295 €tik hasita

- Aseguruekin lan egiten dugu
- Ordainketarako erraztasunak
- Finantziazio pertsonalizatua

www.antoniorafaniello.com

Enparan kalea, 8-1. Azpeitia 943 816736

|||UZTARRIA SUKALDEAN. HIL HONETAN...|||||

TXAHAL-MASAIL IBERIKOEN ERREGOSIA, MIKEL URIAREKIN

OSAGIAK (5-6 lagunentzako)

- 1.500 gr. txahal-masail iberiko
- 200 ml. oliba olio
- 600 gr. tipula
- 120 gr. azenario
- 150 gr. porru
- 10 gr. baratxuri
- 300 ml. tomate frijitu
- 200 ml. ardo zuri
- 200 ml. ardo beltz
- 2.500 ml. ur edo haragi-salda



Oharra: Barazkien eta haragiaren pisua zuritu eta garbitu ondorengo da.

NOLA EGIN

Txahal-masailak gatzatu, 100 ml oliba oliotan frijitu eta xukatu. Ontzi batean 200 ml oliba olio berotu, baratxuria bota, gorritu arte eduki, eta zatitutako barazkiak olio horretan su baxuan egin. Pegidan, aurrez frijitutako txahal-masailak gehitu eta ondo nahasi ostean, ardo zuria, ardo beltza, tomatea, gatzatu eta ura edo haragi-salda gehitu. Ordu eta erdian egosten utzi.

Egositakoan barazkiak eta haragia bereizi. Barazkiak irabiagailu elektrikoan pasatu, eta, ondoren, txanotik. Saltsa loditu, bitsa kendu eta gatzatu bota, txahal-masailak gehitu, saltsa urritu eta beroan mantendu.

Txahal-masailak aurkezteko plater atala da egokiena. Platera apaintzeko, berriz, hainbat goarnizio -barazkiak, patatak, perretxikuak...- erabil daitezke.



|||LEHIAKETAN ERANTZUTEN EPEA. Martxoak 25 (asteartea) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia edo uztarrisukaldean@gmail.com ||| IRABAZLEARI SARIA. Mikel Urria jatetxean bi lagunentzat afaria edo bazkaria |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da |||BIDALI ZURE GUSTUKO ERREZETA, PLATERAREKIN AGERTZEN ZAREN ARGAZKI ETA GUZTI. EZ AHAZTU ZURE IZEN-ABIZENAK ETA TELEFONO ZENBAKIA JARTZEA!

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

A	K	A	K	●	A	L	A	M	A	R	●
K	A	T	O	N	A	N	U	Z	A	L	A
E	L	A	T	P	I	S	O	●	T	I	●
T	I	D	●	K	A	R	E	R	A	R	O
S	A	●	U	Z	●	G	●	E	A	R	●
A	I	Z	A	L	I	K	●	I	A	K	I
H	●	O	R	I	A	U	A	K	●	A	●
A	T	A	K	E	R	U	S	I	●	I	●
N	E	P	E	S	P	E	H	A	U	T	E
●	D	●	I	●	O	●	B	●	●	●	●

SUDOKUA

3	8	2	8	3	9	6	7	4	1
7	5	6	4	3	8	9	1	2	7
4	9	3	8	1	2	7	5	6	4
1	7	6	2	8	5	3	4	9	1
5	4	8	9	7	1	6	3	2	5
8	5	1	3	2	4	9	6	7	8
8	9	1	5	6	4	7	3	2	5
6	7	4	3	8	2	1	5	9	4

|||UZTARRIAREN OTSAILEKO ARGAZKI LEHIAKETA|||||

ZEIN DA? DIEGO GARCIA ATLETA

IRABAZLEA



Angel Olabarria Uztarrriako bazkidea izan da 158. irabazlea. Odriozolako ardo sorta irabazi du.

ELKARRIZKETA DIGITALA jagoba beobide (futbol jokalaria)

“partida on asko egiten ditugu eta emaitza onak
Lortu ez arren, gure buruarengan konfiantza dugu”

Bigarren mailako saiklapeneko jaitsiera postuetan da Alaves taldea. 2012az geroztik bertako jokalaria da Beobide. Aurretik, Sansen, Real Unionen eta Cordoban ibili zen azpeitiarra. Futbol munduko ibilbideaz hitz egiteko Uztarrarian izan da Beobide.

Alavesek lortuko al du aurreten mailari eustea? Gustura al zaude taldean? Bertan jarraitzeko gogoarekin?

Guretzat oso denboraldi zaila izaten ari da, talde ona dugula uste dut, nahiz eta emaitzek hori ez erakutsi. Ni oso gustura nago taldean, giro oso ona dago eta gure buruarengan konfiantza dugu. Partida on asko egiten ditugu eta emaitza onak lortu ez arren, bada-kigu saiklapenean gauden lekuan egotea ez dugula merezi. Hamabost partida garrantzitsu gelditzen dira eta dugun dena emango dugu bigarren mailan mantentzeko. Bestalde, Gasteizen oso gus-

tura nago, taldean ambiente oso ona dugu eta, gainera, etxetik gertu. Ezin naiz kexatu, bertan gustura jarraituko nuke.

Zuen partidetan porteria atzean sortzen den giroa oso polita da. Iraultza taldea atzetik izatea ederra da ezta?

Bai izugarria da guretzat Iraultza gure atzetik animatzen egotea. Gainera, etxeko partida denak ez



ezik, etxetik kanpoko askotara etorri izan dira taldea animatzera. Partida osoan gu animatzen egoten dira, irabazten nahiz galtzen egon. Iraultzako zaleei esker atera ditugu puntuak partida askotan eta espero dut denboraldia amaitu arte gu laguntzen jarraitzea. Haien behar handia dugu guretzat oso gogorra izaten ari den denboraldi honetan.

Athleticek eskaintza eginez gero, joango al zinateke, nahiz eta herrian aditu egin behar?

Kar, kar, kar! Badakit herrian aditu egin beharko nituzkela bai, baina une honetan Athleticek lehen mailan jokatzeko aukera emanez gero, ahal banu joan egingo nintzateke. Lehen mailan jokatzeko futbolari batentzat dagon gauzarik handiena da, baina Athleticen edukitzea utopia handi bat dela esango nuke. Gainera, ni oso gustura nabil Gasteizen.✘

EFEMERIDEAK

1648

Martin Oronoz armagileak.

Konpondu eta garbitu zituen herriko armak gorde zituzten ospitaleko gela batean, behar zirenean behar bezala izateko.

1681

Gorputz egunerako.

Antzerki erako auto-sakramental bat antolatzea eskatu zioten alkateari.

1681

Herritarren gozamerako.

Karnabal iganderako zezenketa antolatu zuten agintariek. Astelehenean, herriko harakinak idizko bat ibili behar izan zuen kaleetan, eta asteartean sei bigantxeekin egin zuten jaialdia.

✎ **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

✎ **Egilea:** Imanol Elias Odriozola.

✎ **Argitaratzailea:** Uztarraria Kultur Koordinakundea.✘

uztarraria.com

Azpeitiko ataye

- Eguneko albisteak - Herritarren iritziak - Komunitatea - Bideoak
- Inkestak - Agenda - Bitxikeriak - Uztarraria aldizkari guztiak
- Uztarriaren produktu guztiak - Efemerideak
- Azpeitia atala: zerbitzu publikoen ordutegiak, telefono zenbakiak, festak, hauteskude-emaitza guztiak, herriko taldeak...
- Gida komertziala: herriko denda guztien telefono eta helbideak

sartu eta parte hartu

Egunero 3.000 bisita inguru



Oilagorra

Askotan esaten da oilagorra ehizatu ondoren, hotz giroan zintzilik mantendu behar dela, baina horrekin ez nago ados. Horrela lortzen den bakarra bere haragiaren osasun dohainak galtzea da.

Haragi mota denak baldintza onenetan kontserbatu behar dira, bai zapoarengatik, baita bere antzutasunagatik ere; eta esaten duten beste guztia arrazoi zientifikorik gabeko ipuina da. Errespetatzen dut, halere, Busca Isusi bromatologoak zioena: oilagorra prestatzerakoan garrantzitsua da haren hesteetako edukia ere erabiltzea, eta horretarako ezinbestekoa da lehen tiroz hiltzea; bestela, lehen tiroak eragindako sustoaren ondorioz beherakoa emango lioke eta hori ez da inolaz ere ona.

Egun, gure gastronomian ehizako jakirik prezia-tuena da; beharbada, gure artean denboraldi laburrean eta negu garaian izaten delako.

Elikatzeko dituen dohainak aipatzerakoan, oso krudela iruditzen zait 'oilagor odoltsua' gauza interesgarria balitz bezala aurkeztea. Bestalde, denen ahorako ez den gutuzi gastronomikoa da, eta hainbat arrazoigatik sukaldariei nabarmentzea gustatzen zaie prestaketan. Baserriko oilasko baten antzeko ezaugarriak ditu oilagorrek. Halere, hor dago gourmet on batenzako luxuzko janari bezala.✳



||||||| **Julian bereziartua** |||||

A. TABAR/L. GORROTXATEGI gailu mugikorretarako zerbitzua



- 1. Salmenta handiena?**
Zerbitzu teknikoak, tabletak, mugikorrak, osagarriak...
- 2. Ohiko konponketa?**
Pantaila pitzatu, puskatzea.
- 3. Non konpontzen dira?**
Zentrala Salamancan dugu.
- 4. Jantziak al gaude teknologia kontuetan?**

- Bai, gazte jendea, batez ere.
- 5. Kapritxosoak al gara?**
Prestazio oneko mugikorra nahi du jendeak.
 - 6. Bezero gazteena?**
9 urtekoa, komunioko opari.
 - 7. Eta zaharrena?**
80ren bueltan, tekla handiko mugikor sinpleen eskan.

- 8. Mugikorren aukera...**
Merkatuko edozein mugikor saltzera dedikatzen gara. Zopo-ren banatzaileak gara: prestazio bera prezio erdian.
- 9. Anekdotarik?**
Behin, Arantzasuko egutegia errotera etorri zitzaizkigun.✳
✉ Ainitze Agirrezabala

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Larrialdizak:
943 15 16 40

IRENE ALTUNA
LORADENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

lentzeria mertzeria

jose artetxe, 16

nabar

ORDULARI

Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44

uba
aholkularitza

Aholkularitza:
- fiskala
- laborala
- kontablea

Gestori lanak
Finanzen administrazioa
Gestio inmobiliarioa

Tel: 943 157 929 Fax: 943 157 273
Errepublikan, kalea, 43 - info.ubak@postelnet.net

DI-DA diseinua
zure lorategi edo terrazara diseinua
90€ren truke
www.kimubat.com

Kimubat

Loiolako berbenak

Hamarkada asko pasatu dira Loiolan sanjoseak ospatzen hasi zirenetik. 2.000 sarrera saltzera iritsita daude kontzertu batean. 📝📍 Xabier Otamendi 📍📍 J. M. Arregi

Asteazken gauero biltzen dira Loiolatxo elkarteak, Loiola auzoko festak antolatzeaz arduratzen diren zortzi lagunak. Gehienek hartu dute kafea bilera hasterako, beteranoenek kafea bedeinkatzeko edariekin. Erdiak arregitarak edo *iturbidetarrak* dira: Joxe Mari, Andoni, Iñigo eta Aitzol Arregi. Beste laurak, berriz, Inazio Egiguren, Aitor eta Unai Agirrezabal eta Ander Arzamendi. Garai bateko festez hitz egin behar dugula azal dutakoan, grabagailua Joxe Mari eta Andoniren aldean jarri dute segituan.

Hala hasi da Joxe Mari, antolatzailleetako beteranoena, duela bost hamarkadako festez hitz egiterakoan: "Jatorriz, antzerkiarekin hasi ginen. Jesuita gazteak zeuden, eta haien bidez antzerkia egiten hasi zen, lehenago ere egiten zen arren. Hiru bat urtean egin zen". Inguruko baserrietako gazteek parte hartzen zutela gogoratu da. "Gerora, garai bateko *guatekeak* egiten ziren. Lehengo Kiruriren atzeko aldean *toka diskoa* jarrita".

"Ondoren, festei beste indar bat eman behar zitzaie erabaki zen elkartetik" jarraitu du. Antolatzailleei kosta egin zaie hori justu noiz izan zen adostea, eta airean gelditu da. Andoni Arregik eman du horren azalpena.

"Lehen-lehenago", hauek festak antolatzaren hasi aurretik, *Sanisidroak* ospatzen ziren Loiolan. Hori guztiek ondo dakite. "Gero etenda egon zen, eta sanjosean egi-

ten hasi ziren", dio Joxe Marik. Egutegiko al daketa horren zergatia galdetuta, Iñigo Arregi izan da erantzun duena. "Entzunda daukat, Madariagako festekin ez kointziditzeko zela". Aitor Agirrezabalek gehitu duenez, "Aratz Errekako festek ere garai hartan indar handia zuten". Joxe Marik, ordea, argi utzi du. "Gu behintzat sanjosean hasi ginen". Andoniren esanetan, festen hasieratan, "kantaldia gehiago zen berbena baino". Joxe Marik amorrutu puntu txiki batekin jarraitu du: "Eta jakina, arazorik handiena eguraldiarena izaten zen. Dena aire librean, aterperik ere ez zegoen, ezta txikiarik ere...". Kantaldien ondoren, erromeriarena hasi zela gehitu du: "Egan-en aurretik, estiloko taldeak ekartzen hasi ginen".



"Erromeriak ez zuen indar handiegirik hasieran, baina Egan-en hasieratan izan zen, puri-purian jartzen hasi zenean. Loiolatxo atarian hasi ginen egiten". Baina Andonik azkar zehaztu du ez zegoela aterperik artean. Joxe Marik hala segi dio istorioari: "Orduan, erromeriak indarra hartu zuen, eta konturatu ginen jendetza etortzen zela eta merezi zuela. Gainera, Loiolatxo martxan zen ordurako".

Segidan hasi dira Loiolako festen urterik oparoenekin oroitzen, irribarre txikia gainera kendu gabe. "Handik aurrera, toldoa inauguratu zen urtean, adibidez, zazpi berbena jartzera iritsi ginela gogoratzen dut. Zazpitan Egan izan genuen. Bi astebukaeratan, eta San Jose eguna zubi tokatu zen", esan du Andonik; Joxe Marik azkar galdetu dio: "Egun batean ez al gaude 2.000 sarrera salduta?". "Egan-ekin 2.000 sarrera saldu ziren bai", egiaztatu du besteak. "Abenida dena autoz beteta... *boom*-a zen orduan, jende asko izaten zen", dio Joxe Marik.

Antolaketa

Teiltua berritu beharra izan zuten Loiolatxo elkarteak. Horretarako, Jesuitek dirua aurreratu zieten "hamar urtean itzultzeko konpromisoarekin", Iñigok gogorarazi duenez. "Gu gazteak ginela elkartetik hasi ginen lanean garai hartan". Joxe Marik baieztatu dio: "Bai, zuek orduan hasi zineten sartzen".



1. Basilikaren parean, Joxe Mari (ezkerrean) aizkolariekin, jendetza begira dutela. **2.** Gazteak krosserako prest. **3.** Asto karreraren argazkirik zaharrenetakoa. **4.** Harri jasotzailea.



Behin teiltua konpondu eta hura ordaintzeko dirua bildu beharra izan zenean, festak antolatzearen ardura elkarteko juntan zeudenek hartu zuten, urtero. "Beraz, bazkideen artean banatzen ziren lanak: *hi tabernan, hi sarrreran, bestea zera...*", dio Joxe Marik. Inñigok garbi utzi du noiz hasi zen antolaketa hori: "Teiltuarena izan zenean hasi zen hori guztia. *Goiko teiltu hori, festetatik ordainduko diagu* esan zenean". Andonik gaineratu duenez, "teiltua ordaindu beharra zegoenez, bazkide guztiek zuten parte hartzeko betebeharra".



Inñigo, Arzamendi, Andoni, Joxe Mari Aitzol, Aitor Agirrezabal eta Inazio Egiuren Loiolatxon. III. O.

Dena ez da betiko

Hainbat arrazoi azaldu dituzte festen antolatzailerak duela bizpahiru hamarkada festek zeukaten indarraren galera azaltzeko. Inñigok hasi du azalpena: "Teiltuarena ordaindu zenean, hurrengo juntak esan zuen, iada ez dugu festarik antolatuko. Orduan zu hasi zinen (Joxe Mariri), eta gu laguntzen". Festetako komisioa "pixkanaka atzera eta atzera" egiten hasi zela oroitu da Joxe Marik, segituan "inor ez" hitzak Aitzolek. Inñigo: "Eganek kale egin zuen, eta beraz, Joselu Anaiak ekarri genituen. Garai hartan, ohitura aldaketa ere izan zela gaineratu du Aitzolek. "Auzo festa denak galdu ziren". Inñigok azalpena osatu du: "Lehen izaten zen, *Egan non dago?*, eta Bizkaian jotzen bazuen, autoa hartu eta jendea hara joaten zen". Beraz, dena pare-parean tokatu zitzaizen Loiolako festei. Hortaz, "orduan hasi ginen berbena laga eta oraingo formatu honekin", azaldu du Inñigok. Hori 1997 inguruan izan zen.

Orduan hasi ziren gaur egun finkatuta dauden egitaraua aurrera ateratzen. "Asto karrera eta herri kirolak beti ospatu izan dira", esan du beteranoenak. "Orain, egunez egiten denak dauka indar gehiena; asto karrera, biatloia eta herri kirolak", azaldu du Ander Arzamendik. Musak indar handia daukala ere gogoratu du Aitorrek. Inñigok azaldu du, "gazteenak sartutakoan hasi zirela biatloia egiten. Mus txapelketa ere azkenengo urteetan os-

III "Erromeriak ez zeukan indar handirik hasieran, baina Egan puri-purian jartzen hasitakoan izan zen"

JOXE MARI ARREGI

Festen antolatzaileretako bat

patzen da, eta "indarra hartzen" ari dela gaineratu du Agirrezabalek

Aurrera begira

Gaur egungo aurrekontua mantendu ahal izateko, "udaletxeak eta tabernariak ematen dutenaz aparte, boletoak saldu behar izaten ditugu", dio Inñigok. Boletoetan 1.000 euro ateratzen dituzte, eta horri esker berdintzen dute aurrekontua. Beraz, ez zaie "iristen" bestelako gauzak egin ahal izateko, Aitzolek azaldu duen bezala. Festen astebukaerako ibilerak ere kontatu dituzte amaitzeko. Aitor: "Astebukaeran, gu eguerdi partean asto karreraren atera behar gara, bailak guk mugitu behar izaten ditugu eta, beraz, ezin ditugu boletoak saldu...". Giro txarrarekin izugarritzko galera egin daitekeela gogorarazi du Anderrek. "Hala ere, asto karrera bertan behera uzteko moduko eguraldirik ez du egin azken urteetan".

Amaitzerakoan, mahaiaren bueltan dauden guztiak ados jarri dira festekin jarraitzeko gazteen beharra dagoela. Izan ere, Joxe Marik esan duenez, "orain arteko gazteenak ere zahartu egin zaizkigu eta [kar kar kar]". ✨

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Erla Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11

FARMAZIAK (MARTXOA)

EGUNEZ

1-2-7-13-18-26	3-8-9-14-19-27-31	4-6-10-15-16-20-28	5-12-21-24-29-30	11-17-22-23-25
Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 811 949	943 815 974	943 811 274	943 080 258	943 811 350

GAUEZ

1-2-13-18	10-15-16-20	11-17-22-23	12-21	14-19-31	3-4-5-8-9-28	6-25-26	7-24-29-30	27
Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).
943 811 949	943 811 274	943 811 350	943 080 258	943 815 974	943 851 966	943 852 989	943 850 660	943 851 235

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Martxoaren 26an izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Aralar	647 42 59 95
Hamaikabat	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47

AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPO TXOKO** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ JASO TXAKUR KAKAK.

Poltsa bereziak udaltzaingoa eskuratu daitezke, doan. Kakak poltsan jaso ondoren, bereziki horretarako jarritako edukiontzietan bota. Izan ere, azken aldian kexa ugari jaso dituzte udalean.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarrria.com/azpeitia/
autobusak

OLAIA EGURROLA

Santiago, Txile

“TXILEN bizi diren euskaldunekin elkartu ohi gara”

Krisia medio, Txileko Santiagon bizi da duela urtebetetik Odria-Egurrola familia. Buelatzeko egunik ez dute.  A. Agirrezabala

Zer dela-eta zaudete Txilen?

Aitor senarra lanik gabe zegoen eta Seguro-la eraikuntza-enpresak hiru hilabeterako lana eskaini zion Txilen, eta izako martxoan etorri zen. Lana ondo joan zitzaionez, familia osoa etortzea erabaki genuen; Ibai semea eta ni abuztuan heldu ginen. Gabonak arte Atakamako desertuko Caldera herrian bizi izan gara, eta geroztik Santiago hiriburuan, Las Condes auzoan. Momentuz ez dugu bueltatzeko egunik.

Ondo integratu al zarete horra?

Bai, Aitorrek iparraldean jarraitzen du lanean, hiriburutik 1.000 kilometrora. 14 egun jarraian lan egiten du eta, gero, zazpi egunez jai. Iparraldeko bizimodua gogorra da; bertako lana meategiei lotuta dago. Hiriburura etorri garenetik, informatika enpresa batean egiten dut lan, Txileko bankuarentzat. Beldur gehiena Ibaik ematen zigun, ez baitzekien erderaz hitz bat bera ere esaten, baina orain bikain moldatzen da; eskolara joaten da.

Nolakoa da horko jendea?

Denetako jendea ezagutu dugu. Oro har, la-guntzeko prest daude eta atseginak dira.

Azpeitiak ez duen zer du horrek?

Mugikortasuna. Metrotik gertu bizi gara eta horri esker hiriburuko puntu gehienekin lotura dugu. Hori bai, metroa jendez gainezka izaten da.

Horko zer gustatu zaizu gehiena eta zer gutxiena?

Gehiena lagunartean egin ohi ditugun parrillako jatorduak. Gutxiena, berriz, eguneko momentu batzuetan kaleetan egoten den jende oldea.

Azpeititik zer botatzen duzu faltan?

Familia eta lagunarteko taberna giroa. Ibaik, berriz, baserria eta ingurua.

Euskal Herriaz ba al daki ezer horko jendeak?

Bai. Abizen euskaldun asko dago. Euskara ikastaroak ematen dituen euskal etxe bat ere badago. Klaudio Bravo, Txileko selekzioaren kapitaina, Realeko atezaina da eta hari esker jarraitzaileek Donostiren berri dute.

Ezagutu al duzue euskaldunik hor?

Bai. Facebook-en talde bat dago, 'Vascos en Chile', eta bizpahiru aldiz elkartu gara. Azkenekoz, futboleko euskal derbia ikusteko.*



1

1. Aitor eta Ibai aita-semeak. 2. Olaia eta Ibai ama-semeak, Txilen bizi den Kepa Bilbao Berritxuko apaizarekin. Olaia izatez berritxuarr da. 3. Ibai, merkataritza-gune batean.

10.992 kilometrora dago Santiago Azpeititik.



2



3

Martxoaren 22ko desolamendua

2 2 zituen hilako martxoak, eta guk ez genuen askoz urte gehiago 1984 hartan. Bero zen garaia. Horixe dut gogoan. Guardia zibilak –beti parean guardia zibilak, lehen eta orain–, eta poliziak –beti parean Espainiako polizia, lehen eta orain–, lau gazte hil zituzten Pasaian, azpeitiarrak bi, Iruñekoak beste biak. Otsailaren 23an Enrike Casas hil zuten Donostian Komando Autonomoek. Greba orokor handia egin zen herri askotan. PSOE zegoen Espainian agintzen. Felipe Gonzalez. Inguruan zituen Rafael Vera, Julian San Cristobal... Gogoratzen zer izan zen GAL?...

Otsaila bero, beroago martxo. *Kurro eta Pelitxo, Pelu eta Txapas*. Odol hotzean hil zituzten lau gazteak gaez Pasaia badi. 'Pasaia segada' da harrezkerok. Hurrengo egunean, goizean goizago zabaldu zen berria gure herrian. Greba orduan ere. Behar bada, bilera udaletxeko arkupean. Seguru da manifestazioa eta Kurro eta Pelitxoren gorpuak udaletxean jarri zituztela. Joxemari Urrustillen argazkiak. Eta jendearen emana. Gazteak ziren hildakoak, eta, guztien gainetik, gazteak kalean.

Poliki-poliki jakin genituen xehetasunak. Detaile beldurgarriak. Aurretik Rosa harrapatu zutela Donostian. Atxilotu zutela, baina ez zutela zabaldu. Isilpean eduki zutela, Iparraldeko kontaktuari hots egitera behartu zutela. Hitzordua zehaztu zutela martxoaren 22rako Pasaia badiako leku jakinean. Eta susmo txarrik gabe hitzordura azaldu zela komandoa. Bost gazte ziren zodiak batean. Ontzia harkaitzetara hurreratu orduko, fokuak piztu zirela. Zalaparta, nahastea eta anabasa. Tiro zaparrada lehorretik. Uretara salto eginda ihes egiteko ahalegina gazteek. Alferrik. Harrapatu eta hotz-hotzean hil zituzten, fusilatu zituzten lau lagun. Bizirik utzi zuten Joseba, bizirik lehendik atxilotutako Rosa.

Kurroren anaia Pelloren negarra, desolamendua, betiko gure gogoan, martxoero,



|||||||miel a. elustondo|||

|||Kurro eta Pelitxo, Pelu eta Txapas. Odol hotzean hil zituzten lau gazteak gaez Pasaia badi

hilak 22 dituenean... Dioni, Pelitxo, Pelu, Txapas, Rosa, Joseba... Itoizen kantuarren airean...

Esaten du ene hiztegi batek desolamendu hitza latinezko 'Desolatio' hartatik datorrela Jenitiboz 'desolationis'

Dio baita ere mila seiehun eta Hamabigarren urtean sortu eta idatzi zela lehengo aldiz antzara txuri baten lumaz

... bere hiru esanahiak direla 'bakardade, ruina, hondamen'...

baino ordea ez dio ezer kaletik doan jendearen bihotzetaz

*baino ordea ez dio ezer gure bihotzaz zutaz eta nitaz kartzela edo kuarletekako patioaz...**



landeta
brikodenda



Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA
tel. 943 81 25 66 - mug. 607 75 88 01 - landetabrikodenda@hotmail.com
www.landetabrikodenda.com

Softekin
INFORMATIKA

ORDENAGAILUEN SALMENTA
MOTA GUZTIETAKO ORDENAGAILUEN KONPONKETAK




GEURE HIZKUNTZAN LAN EGITEKO,
NEURRIRA EGINDAKO
EUSKARAZKO PROGRAMAK DITUGU
(Autonomo, enpresa txiki, denda,
taberna, jatetxe, akademientzat...)

Iberotarren plaza 8, behea 20730 Azpeitia Tel.943 81 51 51

www.softekin.com



horzkari
hortz osasun klinika



Dentistaren beldur?

Teknika aurreratua dugu gurekin...

'sedazio kontzientea'

Hartu zure txanda eta


proba ezazu doain*.

*aurrekontua onartu duten bezeroentzat



Iberotarren plaza, 4 behea
20730 Azpeitia
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

Garmendi Otaola, 5 behea
20200 Beasain
t. 943 16 10 18
t. 685 75 45 88



Santi Lazkano Kiroiak
Jose Artetxe 1
Tel/Fax: 943 81 16 50